

VÍCTOR SÁNCHEZ DE ZAVALA: *Ensayos de la palabra y el pensamiento*. Madrid: Trotta, 1994. 262 orr.

1984tik 1991ra, Euskal Herriko Unibertsitatean Hizkuntzaren Filosofiako Katedraduna dela, Víctor Sánchez de Zavalak idatzitako pragmatika lingustikoari buruzko lau saiolanen bilduma da hau. Egileak dioen bezala, lehena salbu, ingelesez idatzitakoak dira eta espainoleko bertsiok bereak dira. Hau esango ez baligu eta ingelesezko bertsiok ezagutu gabe, zaila litzateke norbaitek itzulpenak direla somatzea. Gutxitan dago aukera ikerketa zientifikoaren eremuan hain gaztelera aberatsaz gozatzeko.

Liburua bi zatitan bana daiteke beste bi irizpideren arabera: saio bakoitzaren helburua bata, eta honen ondorio naturala baino ez dirudiena bigarrena, alegia, luzera. Bigarren zatia azken saioak osatuko luke: "Prolegómenos a una posible teoría pragmática (modesta)". Gai-nontzeko saioak baino askoz luzeagoa da (149 orrialde, liburu erdia baino gehiago, beraz), eta ezin du bestela izan, bere helburua ez baita hain umila: pragmatika linguistikoa dauden teorien mugak gaitzitu dituen teoria berri baterako oinarriak finkatzea.

Lehenengo hiru saioek, berezi dugun zatietarik lehena osatuko luketena, Víctor Sánchez de Zavalaren 1984tik 1991erako bilakabide intelektualaren hainbat zantzu eskaintzen dute. Hiruok hartzen dituzten 75 orrialdeetan hankaz gora jartzen dira hizkuntzaren teoria gehien oinarritzko ideietako batzuk. Adibidez, hizkuntza eta pentsamenduaren arteko harremanari dagokion hauxe: hizkuntzak pentsamendu zehatzak adierazten ditu, pentsamenduari ezer gehitzen ez diolarik (komunikazioaren teoria tradizionaletik datorkigun ideia). Edo hizkuntzaren funtzio nagusia komunikazioa dela dioena, komunikazioa, gainera, informazio transmisio gisa ulertzen duena (komunikazioaren teoria tradizionaletik datorkiguna hau ere, eta pragmatika gricearrek, pertinentziaren teoriak bereziki, berentzat hartu dute).

Gaur egungo teoria pragmatikoaren izaera metodologikoa duten oinarriek ere kritika zorrotza merezi dute, hala nola, elkarrizketa gobernatzen duten printzipio eta maximen esistentzia bera eta kontrastazio empirikorako aintzat hartu beharreko irizpide bakarra intuizioa dela dioena.

Lehenengo saioa, "Un punto de contacto entre el pensamiento y el lenguaje", autozuzen-keta mota berezi baten analisitik abiatzen da. Ez dute inolako akatsik zuzentzen eta bateragarriak dira 'zuzendutako' adierazpenarekin. Adibideon analisitik abiatzen da pentsamendua eta hitzaren arteko erlazioa aztertzeko, eta konkretuki ekintza linguistikoa gertatu aurretiko esanahi asmoaren analisisan. Analisi honek hizkuntzaren funtzio nagusiari buruzko gogoetara eramaten du: hizkuntza kognizio egoeren aldaketarako bitarteko unibertsala da. Ikuspegi honen arabera, hizkuntzaren funtzioa ez da komunikazio (informazioaren transmisio) hutsa. Honen harian, teoria semantiko egoki batek bete beharko lituzkeen baldintza orokor batzu ere formulatzen ditu.

Bigarren saioak "Sobre el estudio de la actuación lingüística" izenburua darama. Donostian 1989ko maiatzean ospatutako Zientzia Kognitiboari buruzko Nazioarteko Lehen Kongresuaren sarrera hitzaldiari dagokio. Hasteko, zientzia kognitiboaren objektuari buruzko proposamena egiten du, disziplinartekotasunak eta interes eta metodologia ezberdinen ugartasunak esparru honetako ikerlanon norabideak nahasi baititzake. Hizkuntzaren kasuan, ikerketak hizkuntz iharduera motak oro hartu behar ditu helburutzat, egilearen ustez. Saioaren zatirik handiena hizkuntz ariketa edo aktuazioari (produktio nahiz harrerari) buruzko teoria ezberdinen azterketa zabal bati eskainia da. Harrerari buruzko teorien artean zatitze/analisiaren teoriak eta interpretazioarenak bereizten ditu, eta azken hauen artean ikuspegi filosofikoan, ikuspegi psikologikoetan eta ikuspegi pragmatikoan oinarrituta daudenak. Teoria pragmatikoaren artean Sperber eta Wilson-en pertinentziaren teoriari arreta berezia

eskaintzen dio. Jatorrizko bertsioan teoria honi buruz egiten zen kritika ez da oraingoan sartzen, laugarren saioaren edukina dela eta. Saioaren azkenaldera, teoria pragmatikoei kritika orokorra egiteko ezezik egilearen beraren proposamenaren zutabe izango den ideia aurkeztu du: ariketa linguistikoa ez da ekintza gisa hartu behar, *iharduera* gisa baizik. Sánchez de Zavalaren arabera, ariketa linguistikoa ekintza kontsideratzea da aipatu teoriak behar baino mugatuagoak izatearen zergatia, komunikazio ekintzaren nozioan kabitzen ez dena ez baitute aztergai.

Hurrengo saioan, "Contra las teorías de la conversación y sus principios", 1990ean Barzelonan Pragmatikako Nazioarteko Kongresuan egindako hitzaldia daukagu. Gaur egungo teoria pragmatikoen hainbat oinarri orokorren kritika egiten du eta bereziki Sperber eta Wilsonen pertinentziaren teoria hartzen du hurbiletik aztertzeko. Batetik, teoria hau ariketa linguistikoa teoria gisa murriztegi izateko arrazoiak ematen ditu: besteri zuzendutako komunikazio deliberatua bakarrik hartzen du objektutzat eta, praktikan behintzat, hizkuntzaren erabilera komunikatiboa pragmatikoki azaltzeko ez du kognitiboa ez den beste faktorerik aintzat hartu beharrik ikusten. Kanpoko arazo hauetaz gain, bestetik, pertinentziaren teoriaren zenbait barne problema serio azaleratzen ditu: adibide batzuen bitartez, teoria interpretazio intuitiboki naturalenak mugatzeko ezgauza dela erakusten du, proposatutako "pertinentzia" kontzeptua bera kritikatzeko da eta, agian kritika gogorrena, zalantzan jartzen da elkarrizketa gobernatuko lukeen edozein printzipioren egokitasuna.

Sperber eta Wilson teoriari buruzko emaitza negatibo hauek balio dute orohar egungo teoria pragmatikoen kasurako. Informazioaren transmisio ez diren baina ariketa linguistikoa badiren hainbat fenomeno ez dira kontuan hartzen, bakarriketa, esate baterako, edo biraoka aritzea edo garbi asko gu ulertzeko kapaz ez diren izakiei mintzatzea. Horregatik ariketa linguistikoa teoria orokor batek honelako mugak sortzen dituzten oinarri metodologikoak errefusatu behar ditu.

Hirugarren saioaren amaieran laugarrenean garatuko den bere proposamenaren zertzelada batzuk ematen ditu. Lehen urratsa ariketa linguistikoa 'kokatze ontologikoa' deitzen duena egitea da: ariketa linguistikoa *balitz-bezala joko* gisa ulertzea proposatzen du:

El hablante maneja realmente con sus palabras 'entidades' semánticas: estas no son, sin embargo, el verdadero blanco al que apunta, sino muy otras 'entidades': aquello de que pretenda hablar o a lo que pretenda referirse. Y el oyente maneja las palabras oídas mismas, la locución proferida: pero en cuanto oyente lingüístico (sólo como tal, desde luego) semejantes entidades fonéticas carecen de interés: en lo que se fija es, una vez más, en aquello de que presumiblemente quisiera hablar el hablante (87. or.).

Bere teoria eraikitzeko ibili beharreko bidean beste abiapuntu bat ere hartzen du: kognitiboarekin eta ekintzarekin lotura estua duen nozio psikologiko baten istudioa, emozioarena, alegia. Emozioa eta iharduera linguistikoa ikertzea proposatzen du, emozioak eragiten dituzten situazioen sailkapena aztertzea, iharduera linguistikoa sortzaile posibleen sailkapenerako. Honela, teoria pragmatikotik at lortutako kontzeptuak dauzkagu, oraingo teoria pragmatikoen beste oinarri bat errefusatuz: ariketa linguistikoa azalpenerako teoria pragmatiko autonomo baten posibilitatea.

Laugarren saioa, "Prolegómenos a una posible teoría pragmática (modesta)", Euskal Herriko Unibertsitateko Logika eta Zientziaren Filosofia Sailak argitaratutako txosten baten itzulpena da. Aurreko hiruetan ez bezala, alde batera uzten dira besteren ikuspegiekiko kontsiderazio kritikoak eta bere teoriaren eraikuntzari ekiten dio eta ariketa linguistikoa teoria baterako oinarri sendoak poliki finkatzen dira. Goian aipatu dugun ildo beretik, egungo teoria pragmatikoenak baino irizpide metodologiko gogorragoak postulatuz hasten

da saioa (I. atala). II. atalean ariketa linguistikoaren "kokatze ontologiko" berria egiten da *balitz bezalako jokoaren* ideia erabiliz eta emozioaren teoria bat aurkezten da, honetatik iharduera linguistikoaren teoria bat deribatuz. III. atalean zehazten da ihardueraren teoria orokor hori ariketa linguistikoaren teoria batean. Egungo teoriaren oinarri metodologiko eta ontologiko murrizak gainditzeaz aparte, bere balioa hainbat adibideren analisiaren bidez erakusten du: teoria horiek kontuan hartu ere egiten ez dituzten ariketa linguistikoaren fenomenoak azaltzen ditu, eta baita ere izaera kognitiboko komunikazio kasu garbi izan arren teoria hauek azal ez ditzaketanak.

Laburbilduz, hauxe esan nahi dugu liburu honi buruz. Víctor Sánchez de Zavalak urte hauetan egindako ikerketen bidea jarraitzeko modu onena da. Egungo teoria pragmatikoek eragindako kezka sakonek bultzatuta, bere mugarik handienen azpiko arrazoiak aurkituta, oinarriak berregiteko lan nekezari ekiten dio, honelako teoria batek bete beharko lituzkeen baldintza metodologiko eta ontologikotatik abiatuz, lerro nagusien marrazketan gelditu gabe xehetasuneko azterketara ere jaitsiz. Guzti hori gaztelera eder batean. Argitalpena, berriz, oso zaindua da eta autoreen eta gaien aurkibideak ere baditu. Zaila da gaztelera maila honetako ikerketa lanak aurkitzea. Hitza eta pentsamenduari buruzko gogoeta kontzeptual eta zientifikoa interesik duenak ez luke liburu hau irakurtzeko aukera galdu behar.

*Kepa Korta*

ILCLI

Logika eta Zientziaren Filosofia Saila

UPV-EHU

ROBERT M. HARNISH (ed.), *Basic Topics in the Philosophy of Language*, Harvester Wheatsheaf, 1994, xxix + 633 or.

Hizkuntzaren filosofiaren historian zehar klasikoak bihurtu diren artikuluen bilduma baten aurrean gaude. Argitarazlearen esanetan antologia honek helburu zehatza du, hain zuzen ere, hizkuntzaren filosofiaren irakaskuntzarako irakurketa materialak eskaintzea. Zerbait arlotan gertatzen den moduan, honetan ere, testuliburuek ezin dute jatorrizko klasikoan lanik ordezkatu testuen hasierako freskura eta erakarpena galtzeko arriskurik gabe.

Antologiaren sarreran dagoeneko, editoreak, hizkuntzaren filosofiaren gai nagusien loturak bideratzen ditu, esatebaterako, komunikazioa, erreferentzia, esanahia eta egiaren artean ematen direnak. Aldi berean, Harnish-ek hizkuntzari buruzko erreflexio filosofikoaren erdigunea, hizkuntzalaritzan bertan, eta logikaren erakarpenetan datzala gogorazten digu. Azkenengo urte hauetako garapenak kontuan harturik ez da lan erraza hizkuntzalaritza eta hizkuntzaren filosofiaren arteko bereizketa modu argi batean adieraztea, nahiz eta diziplina hauen metodoak eta helburuak ezberdinak izan. Harnish-ek "sistematikotasuna" kontzeptuaren bidez apostua egiten du bereizketa hori argitzeko. Hizkuntzalaritzak sistematikoa nahi du izan, hau da, zientifikoa; hizkuntzaren filosofia, aldiz, ez du sistematikotasuna helburu nagusizat. Harnish parafraseatuz, hizkuntzalaritza "hizkuntzen" ezaugarrietan murgiltzen da, hizkuntzaren filosofia "hizkuntzarenean". Beste aldetik, Harnish-ek adierazten duen moduan, logikaren filosofia dugu hizkuntzaren filosofia eta logika kateatzeko bidea.

Hizkuntzaren filosofiaren kokapena ezinbestekoa bada ere, editorearen sarreraren balioa ez da horretan agortzen, bildutako artikuluei buruz aditzera ematen dizkigun notak eta (irakasleei zuzendutako) materialak erabiltzeko aholkuak kontuan hartzen baditugu. Argitarazlearen hitzetan, bilduma osatzen duten paperen hautaketa eta antolaketak erizpide bi-